AZALPENAK

# Gixon-gogorra

## LAUAXETA

Balmaseda'ko errijan gixon ausartunak ei-dagoz. ¡Baña ezgero umekeri bategaitik ikeratuten diranak! Gaurko egunean, ausartu asko dagoz, arrizkuba urrun ikusten dabenian, atxuaren agiñak ikustian barriz, txerrenak daruan gogua baxen azkar aldenduten diran.

—Zelan ostu dautzubez sakelako txindijak ba? Ezenduban esaten iñor etzala zeuretzako-ala?

—Bai, esaten neban, baña beste ogei lagunekaz etorri nitzalako ostu eusten. Bakarrik etorri ba'nintz etzan jazo olakorik.

Erantzun au entzun dot, baten-baña-geyagotan. Geure Balmaseda'ko gixontua etzan olakua barriz. Errege aldijan etzan ausartuba be, baña gero iñon alako morroirik etza aurkituten. Orreik bizkaitarrok, orreik etzataz ezetarako be. Neure putsak, axiak eruango leukezak orreik. Pistola ta koplak darabilguzala? Neuk eztaukok beintzat. Ukubillak daukodaz nik ederrak, ukubillak. Lenengo aurrian paraten yatanari musturrak apurtu biar dautsodaz.

Erderaz olako gangarkerijak esaten euzan geure maketo onek.. Sakelean pistola edo iskillu galanta eruan ba-ta. Errijan etzan berak lako ollarrik. Aren itzak eta putzak. Au ta ori ta bestia jazoko ei-zan. Iñoiz barriz etzan ezer jazoten. Txakurrak ausiar egiten ba'dau, aginkarik ei dau egiten. Oneri be beste orren beste gertuten yakon.

Zeyan itzaldija euki eben abertzallak. Yente asko eldu be eldu zan. Txalo asko entzun eben izlarijak eta erriko yentetik onenak pozik egozan. Ezkertarrak ostera tripetako miñakaz. Ezin jasan ba iñoren ona. Olakuak asko dozuz erri-txikijetan. Bekatxa sortuten yake iñoren onaren aurrian.

Erriko-zubi erdijan jarri zan ba "Etxa-fuegos" morroskua, lau edo bots abertzalegaz askalduteko asmua eukolako. Errekea urez beterik etorran. Emakumiak igaro ziran aurrera ta gixon-ausartubak ez eutsoen ezer eginten. Itz-loyak-edo esan bai, orretan nagusi dozuzalako ezkertarrak.

Tipi-tapa an etorzan abertzale gaste bi. Morroskote andijak be etziran, baña bai eutsi argijak eta garbijak. Begi-urdiñak, aurpegi-labanak, iñori txarrik egiteko gai ez-tiran mutillak.

—Nora zuaze?

—Zuri etzazu ardurarik. Gura dogun tokira. Eta kendu zaitez bide-erditik.

—Ez, emetik etzarie igaroko. Neuk esan dot, bai? eta neure esana betetu biarko dozube. Entzun dozube?

Geure abertzaleok alkarreri begiratu eutsoen. Gastetxubak ziran. Baña etziran bilduntu.

—Kendu zaitez bide-erditik. Mesedez eskatuten dautzugu.

—Ez enaz kendu. Eta au esan ebanian, aizto andi bat atara eban sakeletik.

Esku artian labankeri batzuk egin aiztuari ta gero lurrean lerro bat egiten jarri zan. Ertze batean asi ta beste ertzeraño egin gura ixan eban:

—Lerro au ezetz igaro?

Baña esan itzau ta lerrua amaitu baño len, geure abertzaleok artu eben atzeko pratatik eta buruz-bera errekara jaurti eben. Aren sokorrubak eta didarrak. Iru edo lau aurrustada egin euzan uretan eta gero gorantza begiratu eban sorozi eske.

—Mesedez atara nagixube...

—Juazan bidetik urteik, gura badok, ezpabere ondatu adi. Urrengorako ikasten badok ija!

Eta tipi-tapa euren etxietara juan ziran geure gasteok. Gixon-ausartubak didarka yente gustija ekarri eban erreka-ondora. Baña jazokuna jakin ebenian, barretan egin eben gustijak, gura aña.

"Ollo-busti" orain, "ollarra" barik esaten dautsoe morroskote maketo ari. Abertzaliai bakian itzi dautsoe bai, beste bustijaldi bat eruan eztagijentzat.

# Egunekua

ITA ZURRA

Erreketa'ko Joseba Andoni etxagun entetsubak iru seme ebazan, ta irurak 20 urtetik gorakuak.

Eta Joseba Andoni zurrak, zartxuba be ezala-ta, bere etxaguntzea iru semietazeñeri itxiko eutsan erabagi eziñik, oldoztu ta oldoztu iñarduten eban.

Ainbeste urtetan maitakiro landu ta abendu eban etxaguntza ederra ezeban gura, ta edozeñen eskubetan izterik be, eta oldoztubak oldoztu egin-ondoren, iru semiai gizon-banan deitu ta euren zurtasuna nodokua zan aztertutia erabagi eban.

—Mikel—esan eutsan zarrenari—bijar arriko, lenengo azoka-eguna dok ¿bai? ta gaixe kortako zaldi itsubori saltzen dokan zaiteko, araxe eruan biar dok.

Eta Mikel semerik zarrenak aitearen ondubari apalki erantzunagaz, urrengoari zaldi itsuba lokarritik ebala azokaratu zan. Arratsaldian baña Mikel, bere zaldi itsuba lokarritik ebala etxeratu be zan; ezeban zaldu, ba.

—Iñok be eztauzt erosi gura ixan, aita.

—¿Euk zer egin dok, ba, salduteko?

—Zarata: "¿Nok erosi gura dau zaldi ori?" Eta danak ixeka, ¡irri! egiten ditu danak.

—Nire seme zarrena buru gitxikua, leuna da—oldoztu eban aitak.

Eta bigarren semiari deitu eutsan:

—Bijar, Ander, erriko bigarren azokaegunea dok; juakit, ba, bertara, ia zaldi batzuk ik saltzen dokan.

Eta Ander, bijaramon goxian, zaldi itsubori lokarritik ebala azokaratu zan.

Arratsaldian au be baña, beste anaya zaharren antzera, zaldi ta gusti etxeratu zan.

—¿Zaldija saltzerik, eztok, jaditxi, ala? Ainbat itandu eutsan.

—Ez.

—Nire beste anayearen antzera ¿zarataka ari dautsak?

—Ez; zaldija itsuba dala iñok ikusi ezeban-tzat, leku illunkote eskutu baten ondoan euki dot, ba, eta baserritar bateri ez be egingo neutsan, atzo azokan ixan zan gixon batek geuganatuta esan ezpadau: "ezegik zaldijori erosi, atzo zaldu ori etxeratu juen zaldi itsuba dok oriduna".

—Nire bigarren semiak atzipetu egin ixan eban; maltzurra ta gaiztua da—oldoztu eban aitak. Eta irugarren semiari eutsan:

—Jon, entzun; bijar azkeneko azokaegunea dok; zaldi itsuba eruan eta saldu zaitez.

Eta Jon semerik gastena zaldi itsubagaz etxeratu zan.

Arratsaldian baña Jon, zaldi barik etxera zan, eta aitak, zaldi barik etorrala ikusi ebanian, Jon'ganatuta itaune auxe egin zan:

—¿Saldu-egin dok, ala?

—Bai, aita, saldu-egin dot. Lenengotan ez be eztauzt erosi gura ixan. Gero baña ainbat bat urreratu yat, eta auxe esan dot: "Zaldijau itsuba da; ezetarako be ez gauza".

Ori nik gero, olantxe erantzun dautsot: "Ondo, gastia ta osasuntsuba dozu baña ez zaiat; gayo (noria) bateri lotuta eramaiten, ebereixiko zaldija dozu, au, zoragarria. Ezagikentzat begi-estalkirik imiñiten be eztaukotsezu-ta". Eta baserritarrak zaldija erosi egin daust.

—Nire seme gastena, zurra da—oldoztu zuen aitak, eta etxaguntzea berari emon zan.

* * *

Ama-Euzkadi' be, aspaldijon, buru-gorri galantak darabilz, ba. Ama onek, ba, semetan, edozenbat dauz, baña etxaguntza emon leikijon askorik ez orraiti. Onek zer oldozturik asko damotso Euzkadi'ri.

Ama onek ikusten dauz, ¡ta ez gitxi be!, seme zintzuak, ¡arto-zatija baxen apal-on-mazalkotiak diran seme otzanak!... Baña Erreketa'ko Jon Andoni'ren seme zarrenen antzerako buru gitxikuak, leluak. Eta onein eskubetan ezin itzi leike, ba, Ama-Euzkadi'ren etxaguntza aldintsu ederra; auzoko maltzurren batzuk atzipetuta kendu-egingo leuskijoe-ta.

Ander'en antzerako maltzurretan be, bat baño geyago zenbatu leikez Ama-Euzkadi'ren semian artian; euzko-etxaguntza onen igalijak, atzerriko geure arerijuakin erdi-bana egin eta jaten bixi gura dabenak dira seme oneik. Eta oneiri be Ama-Euzkadi'ren etxaguntzarik ezin emon leikijoe.

Erreketa'ko Joseba Andoni'ren irugarren semia lakua, Jon'en antzeko seme bat gura leuke, ba, Ama-Euzkadi'k bere etxaguntza osuaren jaube egiteko. ¿Nun idoroteko baña?...

Bat ixan eban orraiti, ¡ainbeste semen artian bat!: Arana eta Goiri'tar Sabin. Eta bera il egin zan; ¡il!... Gaur bixi dana, Sabin'an gogua bakarrik da... Beraz ez estutu, Ama, zure etxaguntza ederrau Sabin'an goguak jabon eta aberastuko dau-ta.

URIBITARTE'TAR IBON.


**La próxima Página Agrícola**

**se publicará el día**

**26 de noviembre**

**y en ella publicaremos artículos de gran interés para nuestros labradores y para todo aficionado a la agricultura.**

**Lector:**

**Difunde entre tus amigos estas páginas de interés material. Ellas pueden ser la ocasión para hacer brotar en sus almas el afecto a todas nuestras cosas, aun las más elevadas.**


# SUSCRIPCION PRO-UGARRITZA

A LOS BATZOKIS Y DEMAS ENTIDADES PATRIOTAS

A todos los Batzokis y entidades nacionalistas que recaudaron cantidades con destino a la suscripción en favor del compatriota Ugarritza y no hicieron ya entrega de las mismas, se ruega las remitan a la mayor brevedad a esta Comisión, nombrada por B.-B.-B. para este objeto y que tiene su residencia en Correo, 17, segundo Bilbao.

*Comisión Pro-nacionalistas.*

Cantidades recibidas en esta Comisión:

| | *Ptas.* |
|---|---|
| Suma anterior ... ... | 27.020,95 |
| Don Eugenio de Ganboa ... ... | 10,00 |
| Don J. de E. ... ... ... ... ... | 5,00 |
| Señora Vda. de Agirre ... ... | 20,00 |
| Del Batzoki de Eibar ... ... ... | 218,00 |
| Suma total ... ... | 27.274,75 |


**Sastrería ABADIE**

Completo y variado surtido de pañería novedades para toda clase de prendas. Hurtado de Amézaga, 14. Teléfono 10.215.


# ERRIJETATIK

## ARRASATE (Mondragón)

BAT EKITIA ONENA

Aspaldi uri ontako izparrak eztira etorri euzkeraz geure izparringi begiko onetan eta ontxe esnatu dirala esalei batzuek. Zorionak idazle danori, gu antxiñakuak gaituk eta ainbeste urte bizkarrian eta "Mekoleta" ibilten dan lez gastiak zaintzen gaitz egiten jaku eta izparrak gastearian jaudek.

EMAKUME ABERTZALE BATZA'N

Daudenak ere ontxe eztira azarre euren Batzokia badutela eta gogor ekin dautse euzkel-abestiak kasten aurtengo neguan antzoki-jai batzuek ere euko degula diñue itzaldiak ere bai garrai ortik.

ARANZADI JAUNAREN ITZALDIA

Juandan larunbatian Euzko-Gastedia'n eban eta jendia poz-pozik euki eban berak entzuten itzaldi ederra egiñ eban eta orreik antolatzen dutenai eskatzen dautset jarri ekarteko olako-izlariak.

"AL OBRERO VASCO"

Orri bat zabaldu dute ugari erri ontan eta "zozolistuak" piperra igurtzita baño saltakiau dabiltz.

GAZTEIZ'KO EMAKUME ABERTZALIAK

Emengo euren aizpari ikertaldi bat egin biar dautsiela diñue il onen 29'n eta emenguak arrera eder bat gertatzeko dira.

"UDALAITZ" "UDALA-MENDI" ETA "ARANA TXIKI"

Gustiz nagituta daude zer arrayo egiten dozue ainbeste denporan Arrasate'ko izparrik bialdu barik ala zuek ere ¿"dieta" biar dozue?

JUAN-ETORRIAK

Barzelona-aldian egun batzuek igaro ondoren etxeratu dira Ugarte'tar Martin eta bere emaztea.

ARANA-GOIRI'TAR SABIN

En argazkiak daude salgei Batzokian zaneurri bitakuak.

ERIOTZA

Ludi ontan Deun baten eran 93 urte igaro ondoren Jaun Altsuak beraganatu dau Azkoaga anai abertzale jatorren amona. Atsekabian dautsegu laguntzen Azkoaga'tar eta Aldanondo sendiari.

LANERA

Geixo alditxo bat igaro ondoren lanian ekin dautso, ziñegoitzi abertzale zintzo Axpe'tar Nikanor'ak.

ARRI-GURUTZ.

## ELANTXOBE

TXADONA'KO ITXALDIJAK

Egunero ikusten dogu geure txaona notiñez beteta, arratsaldeko bostetan izaten dira gixonentzako itzaldi gustiz atsegingarrijak. Itzlari jauna izanik Goikoetxea aba Josulaun agurgarrija.

ARRANTZALIAK

Aspaldijon etxe-egun luzarokuak eginda atzo itxasoratu ziran geure arrantzaliak, aurtengo neguak arpegi gogorra erakusten ei dautse euroi. Arrantzale ixatia benetan ituna da, egun baten, ezer-ezagaz, bestean egualdi tzarrakaz, beti dauke gosia ta nekia.

—¡Gomutako ete dira eurokaz oraiñ arako auteskunde sasoyan-eurori Jauregi edo "Palasijo" eta "Txaletak" (opresiduten) eutso-senak? Eldu da, ba, sasoya ta ikusiko doguz orrek arrantzalientzako dauken ontasuna.

BILBO'RA

Bilbo'ko uri ederrera aldatu ditube euren bixi-lekuak Natxitube'n senideak. Baita bardin aldatu ditue Zabalbeazkoa'tar Jon eta Ardantza'tar Sabiñe irakasleme gastiak.

NASKALDIJA

Geure artera eldu dira Errenteria'tar Bitor "Zabalbide" itxaz ontzko ontzi-buru edo "Kapitana"; eldu da "Bakeriza'tar Iñaki mutil laguna. Bilbo aldetik agurtu dodaz atzerrietatik elduta Natxitube'tar Sabiñ abertzale zintxoa, eta Jarza'tar Laurentzi aspaldikua.

ZORIJONAK

Datorren igandea deun Koikille egunian emoten ei dautse jataldi edo "errepresku" eder bat, Madariaga'tar Karmele anderañu gastiak bere lagunari bere gaste agurra ospatuteko ustez. ¡Ederto Karmele! ¡Zorijonak opa dautzudaz!

OGOÑOPE.

## MAÑARI

ELEIZKIZUNA

Astelenian, goizeko zortzi ta erdijetan, arimaen aldez eleizkizun ederra egin zan. Ibarra'tar Errupin txaunburu jaunak, garbitokiatzaz berbaldi ederra egin eban. Bertara lagun asko eldu zan.

SABIN-ALDEZ

Beste urtietan lez, Arana eta Goiri'tar Sabin gure Irakasle maitiaren aldez emeko eleizan be, meza bat emongo da. Ta egiten dan eleizkizunaren barri, aldijan, izparringi onetan emongo dogu.

AINGERUTXUA ZERURA

Geure artean lau egun igarota, astartian igon zan zerura Areitio'tar Margarite "Iturburu,,'ko neskatotxua.

Umetxuaren gurasuak, kistar zintzuak diranez, euren atsekabiaren erdijan be poztu egingo dira, zeruan aingeru bat geitu dalako.

JUAN-ETORRI

Lengo astian eruan eben Santurtze'ko "Agirre" osatetxera, Ortuoste'tar Bitoren mutiko polita. Bitorentxu, eure geixuan obatuta ia laster etorten azan etxera.

—Aste onetan emen aurkitzen da Magunazelaya'tar Joseba.

—Gasteiz'era juan zan Lete'tar Kepa mutilla.

—Abadiño'ra Usaola'tar Martiñe anderea.

—Astartean egon zan emen Areitio'tar Erramun bere alaba Irene'gaz.

—Igandian egon ziran Goiti'tar Martiñe ta Lasuen'dar Balbin.

—Abadiño'n egun batzuk igarota, lengo artian etxeratu zan Bizkarra'tar Nikola.

GEIXUAK

Geixorik aurkitzen dira Ortuoste'tar Damene anderea ta Goiti'tar Jonetxu "Uriarte,,'ko neskatilla yasekua. Laster osatuko al-zarie.

ZAURITUTA

Lengo astian, Arrizabalaga'tar Gerbasi ta Goiti'tar Pantzeska (Patxiko), arrobijan eta zerran lanean iñardubela, eskubetan zauritu ziran. Zorijonez baña, zaurijok ariñak ditubez. Osatu arin.

ETXIA BARRIZTU

"Idartza-txiki" deritxon basetxia, atontzen diardue. Eskaratza, gelak eta abar, barru guztija ederto barriztu dautsoe. Bertara biziten, Goiti'tar Martiñ "Uriarte,,'ko mutilla doia.

LUGIÑAK

Egunontan oso bizkor dabilz. Artuak etxeratzen eta gari ereitian erkiteko lurra gertetan zintzo-zintzo diardue. Alperrik eztago emen.

GUDARI

Aste onetan juan da Melilla'ra gudari "Ormaetxe,,'ko Goiti'tar Kuireka (Ziriako) mutilla. Ondo ibili mutil; eta osasunaz erriratu.

BAKOTXARI BERIA

Emeko mutil batek diñozku, igazitako eguaztenian, Mendibe'tik errira bitartian, aldian ekarren erlojua galdu ebala. Erloju ori, urrezkua eztan arren, oso kutun dabela diño; lenengo aurreskua egin ebanian ba, bere aitita zanak gomutakitzat emon eutsona dala ta. Orregaitik, aurkitu dabenak berari emoten ba-dautso, nekez aztuteko moduko sarija emongo dautsela diño.

Ia ba, erloju ori iñok aurkitu ba-dau, Aldebarayeta'ko I.'tar E. mutilla'ri mesedes "entregau" beyo. Olan ba, kistar biarkuna betetuagaz sari galanta artuko dau-ta.

MAÑARIKO.

## IRUNA

EUSKAL IKASTEGI BERRI BAT

Ainbeste aldapata trabazen ondotik, ideki da Iruñean Aurr-ikastegi euskaldun bat. Berri uts au bakarrik naiko da, abertzaleak poztu gaitezentzat. Yaun zeubeiteri esker bildu da ortarako bear den dirua, baño bereziki Artxauko ta Irigarai yaunari esker geraitu dira bideau agertu direan ainbeste traba.

Ogeita amar baño geyago aur doazi eskola ortara, duela 10 egunez: Irakaslea, maite Saizar tolosar andereño argi ta euskaltzalea, Eskola berriz oso apaiña, iguzki aldera ematen duana eta Iruña-berri'ko kamka zabal batera. Bilbao'n ez ei da olakorik, lengo egunean emen irakurri nuanez! Onelako aur-eskolak errapulutx ezdegun artean ezgara asi ibiltzen.

ABERTZALETASUNA

Ametsa iduri du, Nafarruan egin dira 80 Uri-Batzar-Buru baño geyago eta askotan bazkide aintzekin. Corella'n 100 bazkide baño geyago. (Ergabia da bere euskal izena). Azkoyen'en (Peralta) 30 baño geyago. Erriberrin (Olite) eun pasa; Tafalla'n, 140 bazkidekin bere Euzko-Etxea ederrean. Beitiko Erriberan agertu dira abertzale sutsuak, ete oyetarik lan andia dagiena ete Arana-Goiri azia askar zabaltzari ori dana, de "Salamero" yauna, Ergabia-koa (Corella). Gora zu!

Markazko (Cascante), Murtxaute, ikuskaria (Tudela), Zarkaztelu'n (Carcastillo) ba dira abertzale pilla galantak; berdin Bazasoain, Iratxeta, Etxarri, Undiano, ete nik ezdakit zeubatetan... Baño, otoi, irakurlea, ar-ezagu mapa bat ete ikus non dauden erri oriek. Nafarrua pixka bat lo egon bada ere, bortizki ete indar ikaragarri akin asi da iratzartzen. Errietatik eskatzen diguten ainbeste itzlari bageunka, laster geuria'zan Nafarra osoa.

Iruña ta Lizarratik urtetzen dira igandero abertzale multzoak Erribera aldera; emonak izan dira itzaldiak Erriberrin, Bazasoain'en Azkoyen'en, Azagran, Undiano'n ete beste lekutan. Larunbatetan, berriz, emen Iruñean izaten degun itz aldietan yendea zurruztan etortzen da; itzaldi'ak ematen egon dira Aitzol, Arbeloa, Aranzadi'tar Estepan, Irala, Irujo, Monzon eta abar. Arluzea doa, ete agur urren arte.

IRULAR.

## DONOSTIA

EUSKEL IZENA

"Joseba Mirena" abertzale zintzo dan Zubiaurre'tar Martin'an semetxuari. Zorionak.

GAURKO ANTXOKI JAIA

Gaur arratsaldeko 6'an 6 garren antzoki jaia E. Etxea'n. Iru antzerki antzertuko dira. Arozena'tar Andoni'ren Zorigaitz Malkoak Anundarain jaunaren "Uste diñat" ta Barriola'tar Abelin jaunaren "Gai dagonaren indarra".

ABESBATZAREN AZKENEKO SAIOAK

Azkeneko saioetara iritxi gera. E. Etxea abeslari saioetan izaten da. Biar biarrekuak diran txetasun guzien berri izan dezazuten etorri azkeneko saio abetara abeslari abertzale guzi. Guziok Sabin'en gogo aldeko jaupa eder au gure abertzaletasunen diña izan dedin.

SABIN-TZAZ ORAITZEN

Illonen 25 Sabin iltzan 28 garren urteurrena dala ta, goizeko 7'an Okendo kaleko Bururdunetan (Capuchinos) txadonan, jautsa laburra izango da.

Gabean E. Etxean, irakaslien oroigarriz ja. berezia, itzaldi olerki ta abar.

Datorren igandean, Miren Deuna eleiz oragusian, goizeko 11'an jaupa abestua. Jaupa onetan, gure Abesbatza'k lenengo agerpena izango du.

Jaupa garrantzi aundikoa izango da noski. Jaupa ontara, kanpoko abertzaliak ere badatoz, ala idatzi digute beintzat.

ATERRENE.

## LEKEITIO'TIK

Beste erri batzubetatik be euzkeraz idazten dabela ikusi dodanezkero, neu be irri-borro batzuk egiten baño ezpa-da be Euzkel-Atalerantz nua, zelan edo alan gauzeari asijerea emon egin biar yako-ta.

DEYA

Erri onetako emakume-abertzale gustijai dei egiten yake, euren abestitxubak ikasten batzar-lekuratu dautezela. Zenbat eta geyago batuten diran, oba ta oba. Onetarako imiñita dagozan egunak, astelena, egubaztena ta barikua dira.

Eingo neuke ondiño gure batzar-lekuba ikusi bakotan bat baño geyago dauzela. Orrixegaitik da, ba, gure gaurko deya, aitaturiko egunetan aiztu barik gure emakume zintzuak batzar-lekuratuteko egin dogun deya, gabeko zortziretatik aurrera eurai zai antxe egongo da, ba, baten bat.

Ia, ba, danok agertuten zaren.

Mutil gastiak be eztagoz, lo, gure Batzokija'n eresi-irakurten (solfeoan) ikasten diñardubenak zintzo dabiz-eta.

¡Aurrera! mutillak, ekiñaren ekiñagaz ia zeozer egiten dogun.

AMA MIRARITSUBAREN BEDERATZIURRENA

Bederatziurren au betiko oituriari jarraituta ederkiro egiten da aurten be.

Eta geyago eze bez, lenengokorako naikua da, ba. Urrenguan geyago.

BERTOKUA.

## LEZAZPI

Txiki baño motx egingo det-eta ez bildurtu "Lauaxeta", leku txikiya yango dizu onek, ba.

Esan nai nukena da, datorren igandetik asiko dala amen geratzen, gabeko 9,30'tako tximist-burdiya edo "tranvía eléctrico".

Esan det.

ZAR-ZALE.

## ABADIANO'TIK

JAUPA BAT

Erri onetako elexa nausijan illa onen 29'jan goxeko zortzi ta erdijetan Arana-Goiri'tar Sabin eta gaur arte il diran beste enparauko abertzalien gogo-aldezko meza-ixil bat ixango da (Goyan Begoz).

Meza-ostian gure bazkide gustijak abest u egingo dabe, beraz aitaturiko 29'jan al dogunik geyenok txadon nausiratu egin biar gara, eta aurrenengo jezar-lekubetan jarri, gure irakasle Sabin eta enparauko abertzaliakin ondiño ezkariala aiztu erakutsi egin biar dogu-ta.

Eta zubek emakume-abertzaliok batez, be, dei oneri ondo erantzungo dautsezubela uste dot, abertzale arazuetan, zubek, gixonok baño be zintzuaguak zarie-ta. Eta Emakume-Abertzale-Batza'n ixenpetatuta zagozenok barriz, batek be uts egin barik, ¡dandanok erduko zariela uste dot, eta aurraldetxura juan be, onako egunetan lotsia atostian itxi biar da-ta.

"KUKUTZARR'EK ESATEN EBANA

Idazle onek egubazteneko idazkijan Batzoki-biarrak aurrera ebixala esaten eban, eta egija esan be; baña nik gura neukena Batzokija abertzale zintzoz beteta ikustia da.

DURANGO'KO ITZALDIJAK

Jaknitun-edo zarie gaur Durango'n Emakume-Abertzale-Batza'kuak egingo daben jayagaz. Beraz bidezkua da al daben gustijak euzko-jai orretara juatia. Jai orren asijeria arratsaldeko irurak eta erdijetan ixango da, eta bera barriz, "Cine Tabira" deritxon antzokian egingo dabe.

Jai polit onetara juan barik iñor be eztaitela geratu, ba, abadoñotarrok geure abertzaletasuna erakutsi egin biar dogu-ta.

OSATEBAKUNTZARA

Gure aberkiderik zintzo eta zarrena dan Astigarraga'tar Toma, osatebakuntza bat egin biar dabela-ta Bilbao'ra juan da. Ain bat lenen osatuko al da, ba, Astigarraga'ko abertzale zintzuak errijan biar doguz-eta.

BESTE BAT.


**ETXE TA LURR SALDU-EROSTIA**

Etxien-gain diru arrtu-emotia

**INTXAURRAGA'tarr P.**

**Bilbao-Bailen, 3-2'g. 11.685 Urrutizk**


## AZPEITI

DEYOK

Gaur igandea (J. 1.) erri ontako abertzaleak ixango dute Jaupa abestu ta Jaunartzea gure irakasle on ixan zan Sabin ta errian il diran abertzale gustien animen alde. Bertan, Euzko-Etxea'ko abeslari taldeak abestuko dituzte "Ez laudamus Domine" Perosi'ien Jaupa bi abotzetara; "Ofertorio'an" "Ave oerum" Aita Otaño'rena iru abotzetara ta azkenian "Liberame" L. de Rille'rena lau abotzetan.

Ori goizeko 8'etan izango da Erruki-Etxeko txadontxuan, Azkoitin isango dira bertako E.-A.-B. eratu dituzten jaiak.

Azpeitiko abertzaleak: Goizetik danok jun bear degu Jaupa ta Jaunartze orretara ta gero gizonak eta emakumeak ¡danok! Azkoiti'ra, bertako abertzaleari zer diogun ikertaldia ordaintzera ta gure Aberri maitasuna erakustera.

"Lauaxeta", ongi etorri alde onetara.

IGERRA.

## URRETXU'TIK

ERIOTZA

Jun dan asteartean il zan Alberdi'tar Pantzeska, gizon langille ta zinstoa. Atsekabean laguntzen diogu sendikoai.

URTEURRENA

Plazaola'tar Pantzeske'n urteurrena zala-ta igaro dan astelenean ospatu ziran ileta-elizkizunak. Oste azko bilduzan. Berritzendiegu gure samiñ-agurra bere sendiko gustiai.

UDAL ERABAKIYA

Artu duan erakiya, datorren lotazilla'n 3'an asi, ta aurrera ere astero ostegunetan azoka (merkade) izan dedila. Oraingoz beintzat azoka izango da Zabaleta'tar Martin'en saltoki aurrean.

ITZALDIYA

Urretxu'ko Euzko-Gastediya'k eratuta, gaur igandea, 22'an gabeko bederatzitan bazkun onek duan aretoan izangoda itzaldiya, itz egiñaz olotari azkar eta ospetzu dan Añibarro jaunak. Ez dago esanbearrik, ez bakarrik Urretxu'tik baizik Zumarraga ta Legazpi'tik ere asko etorriko dirala onen itza entzuteagatik.

"MIREN GURUTZE"-RI

Poztu nau benetan zure idazki polita irakurtzek. Artuzazu ba nere zorion agur biotzkorrena, ta jarraitu Zumarraga'ko emakumeak esnatzendituzula, Urretxu'ra ere txinparta batzuk bateaz iya danak keia ta sua darioela jartzendituzun.

ARRI GOTZON.

## GATIKA'TIK

ABERTZALIAK

Gatikarrak poz-pozik gabiltz geure batzokija zabalkundia egin zanetik. Abertzale asko yatorkuz euren ixenak emoten bazkide ixateko asmoz. Lan andija egin dau emen "Lauaxeta" eta Zubiaur jaunak emon eben itzaldijak. Eskerrak eurai olako abertzale aldra ederra ekarri dauskubelako.

Emen gastiak batez be lan andija egiten dabe, "Jaun-Goikua eta Lagi-Zarra" zer diran ikasi eta ezututen. Laster erriko gustijak geuregana etorriko dira emeko gaste onein lana ta eredubak ikustian. Ori da ori lan egitia.

LAUKINITZ ETA JATABETARRAI

Auzo-erri gustijetan jarri dabez Euzko-Gastedijak eta zubek lotan? Euzkadi'ren alde lan-egiteko gustijok batu gaitezan arin. Ijaba Laukinitz'ko "Aperre" jauna eta jatabetarrok, aleginduten bazarie Batzoki ederrak zabalduten.

ELEIZKIXUNA

Igaro dan astelinian erri onetako elexan egin ziran ileleizkixunak Intxaurraga'tar Pantzeska zanaren gogo-aldez. Yente asko ixan zan abade agurgarri aren aldez otoi-egiten (G. B.). Ederto txaunburu (párroco) jauna.

EZKON-DEYAK

Bilbao'tar Kiperi geure bazkidia danaren bigarren ezkon-deyak entzun genduzan. Arakistain'dar Miren neskatilliagaz laster ezkonduko da-ba. Zorijonak eta urte askotarako.

IRAKASLIAREN EGUNA

Abertzaliai eta abertzale eztiranai dei bat. Ille onen ogeta bostean geure Irakaslia ixan zan Arana-Goiri'ren gogo-aldez zer-edozer egin biar dogu. Laster azalduko dogu zein egunetan jaupa ixango dan.

ABERRI-ZALIA.

## GANDIAS'TIK

EKIN OLAN

Euzkadi'ko okullu onetan be badira abertzaliak, baña atzeratuta edo gagoz. Orain asi dira zintzo ta gogor lan egiten. Batzuk alde-batetik eta bestiak bestetik or dabiltz zintzuan. Astobieta'tar Aurel sutsubak erakutsi dautsoez euzko-dantzak-eta geure gastetsu bei. Olako asko bageunkez Euzkadi'ko bazterretan.

GUZURARTEKO ZELAYA

"Guzurarte" deritxon zeayan euren batzar tokija egiten dabe emeko baserritar gustijak. Bere erdijan egon zan artia orain ogei urte-edo igertu zan. Beste barri bat jarriko ete dozube aren tokijan?

OSTIKOKETA

Geure ostikolarijak pozik dabiltz gaur jokatuten dabelako Gaminitz'ko "Aurrera Beti,,'kuakaz. Txipias zelayan irebasiko dabelakuan dago geure lendakarijan dan Errene'tar Joseba. Ikusiko dogu ba.

IZPAR BATZUK

Agiriano'tar Martin jaunak etxe polita egin dau beretzako. Abertzale zintzo ta Gaminitz'ko ziñegotzija dogun jaun au urte askotan bixiko al'da.

Jaungoikuaren besoetan il zan egubaztenan Arana'tar Josebe anderea. Neure tamal-agurra bere sendikuai.

Argiarro'tar Bedita gastia emen dago Madrid'tik etorrita. Ondo egon. Onaindia'tar Justa juan da Barcelona'ra, emaz tiagaz. Ondo ibilli.

BIGARREN SORGIÑA.

## MOTRIKO

Igandian egin genduban geure Batzokijan batzar ederra. E.-A.-B. lendakari jarri genduban Biker'dar Jonetxu, buru-orde barriz Arratibel'dar Miren, dirutzain, Voulainda'tar Karmele, idazkari, Lekube'tar Miren, ordezko, Arkotxa'tar Tomase, batzarkidiak, Voulainda'tar Miren, Basterretxea'tar Telespore, Arrieta'tar Miren. Itzaldi ederra gero ixan genduban. Laster emen be ixango doguz izlari trebiak.

Abenda-izkuntzan eta odolez
berdiñak ixan gaitian.
iñoiz ezgauden atzerritarrez
kate estunen azpian.

TXITXO.

## ERANDIO-BEKUA

Iragarrita eguan lez ostiral arratsaldeko bederatzitetan Irisarri'tar Koldobika'k itzaldija ixan eban. Itzaldi orretako lenengo oin-arrijak abertzale ikasbidiaren alde ixan ziran, erakutsi bardin bagiakaz.

Dei sutsu bat egin eutsan Euzkadi'ko emakumai, argiro erakutsirik euren jarraibidia aberrijaren alde lan egiteko. Baita esan eban emakumiak ixango dirala aberri onen katiak apurtuko dabezanak. Irisarri jauna bere itzaldi ederra amaitu orduan, gustiz txalotuba ixan zan.

Aurrera emakumak. Aurrera bijotz beroz orduba eldu da-ta.

BITERI.

## AZKOITI

Nere poz agurra damaitzutet urritar euzkel idasle berri danori, gure euzkera maitian asi zeratela ikustiaz pozten naiz-ta ziñez, baña artu dezuten asmo zintzo ori, aurrera Jarraitzeko zendotu zaitzatela gure goiko-argiak, Jaungoikoaren ta Aberriaren aldez dezuten maitetazuna ori azaltzeko edonun, uzten det emendik aurrera gure errian danik izparrik ezdala geratuko gure izparringi EUZKADI datorrian argitaldu gabe, orrenbeste idasle berri azaldu zaigun ezkero. Jarrai zintzo zeok, eta nik neretokia uzten dizuet aldi baterako ta agur zutzu bat gustiori.

GAIZORIK

Ikurtun deunak artu eta gaizki azaltzen zaigu Batzokiko ezpatadantzari mutil gaste Larrañaga'tar Benin jaunari ezkatzen diogu gure naiz osazuna ludi ontarako edo eriotz on batez betiko bizitza Donokian.

LAUAXETA'RI

Agur jauna eta ongi etorria izan zaitez datorren igandian gure artian, poz pozikan artuko zaitugu gustiak, bañan nezkatzak...

BATZOKI'KO ANTZEZLARIAK

Entzun degunez Azpeiti'ra Juan biarrian dira, antzerki eder "Garbiñe" antzestutzera laizter; egia izango ote da berriori, ondoren egin biar onen dituzte "Gurutzepe" eta "Dollorra". Asmo ederra benetan.

GOTZONE DONOKIRA

Gure lagun abertzale Zubizarreta'tar